



EGOKITU UDAKO CAMPUSA. GIPUZKOAKO CAMPUSEKO TITULAZIO DESBERDINAK EZAGUTU (2. aldia.)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2018/2019

ARLOA: Anitzak

KREDITUAK: 2,5 ECTS kreditu (*)

MATRIKULA TASA: 140 euro

ARDURADUN AKADEMIKOA:

- Alexander Mendiburu Alberro (Informatika Fakultatea)
- Miriam **Peñalba** Otaduy (Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola)
- Maddi Garmendia Antin (Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola)
- **Ramón** Barrena Etxebarria (Arkitektura GET)
- Juan Manuel **Velázquez** Gardeta (Zuzenbide Fakultatea)
- Gonzalo Gerrika-etxebarria Estanga (Kimika Fakultatea)
- Gurutze Intxaurburu Clemente (Ekonomia eta Enpresa Fakultatea. Gipuzkoa)
- Erlantz Allur Aramburu (Ekonomia eta Enpresa Fakultatea. Gipuzkoa)
- Josune Zubeldia Etxeberria (Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea. Gipuzkoa)
- Jaione Lacalle Prieto (Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea. Gipuzkoa)



AURKEZPENA

Unibertsitatea da heziketa-prozesuaren azken urratsa, eta unibertsitate aurreko orientazioak berebiziko garrantzia du etorkizuneko ikasleriak eskaintzen zaizkion aukera hezigarriak eta profesionalak ezagutu eta uler ditzan. Horretarako, ezinbestekoa da hezkuntza-maila ezberdinen partzelazio gehiegizkoa gainditzea eta enpresen benetako beharrei gerturatzea. Ezinbestekoa da ezagutzea egitura ekonomikoaren ezaugarriak eta datozen urteetan enpresek beharrezko izango duten talentoa, bai pertsonen ezagutza teknikoen baita gaitasun eta jarrerren ikuspuntutik ere.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak Gipuzkoako Bazkondearekin batera abian jarritako EGOKITU programak (Euskal Gazteen Orientaziorako Ikastaroa. Talentua Unibertsitatean), prozesu hori hobetzea du



helburu, unibertsitate-orientazio egokiago bat lortzearren. Horrela, ikasle bakoitzaren gaitasunari eta talentuari zein Gipuzkoako lurraldeko enpresa, entitate eta erakundeei egokitzen zaien heziketa berariazko baten bitartez, profesional hobetoak trebatu ahal izango ditugu. Horregatik, EGOKITU ikasle gazteen orientazio profesionala hobetzeko sortutako unibertsitate-orientaziorako funtsezko tresna da; eta, UPV/EHU eta Gipuzkoako Bazkundearen lankidetzari esker, Unibertsitate Publikoaren formakuntza-eskaintza Lurraldeko enpresen premietara egokitzeko baliagarri izan dakiguke. EGOKITU 2002 eta 2004 urte bitartean jaiotako gazteei zuzendutako Udako Campuseko eskaintza da, unibertsitate errealitatera eta enpresa mundura modu ludikoan hurbil daitezten ahalbidetzen duena. Horrela, ikasle gazte horiek modu askoz ere egokiago zein eraginkorragoan ezagutu ahal izango dituzte, batetik, hurrengo fasean eskura izango duten formakuntza-eskaintza eta, bestetik, Gipuzkoako enpresa-sarearen errealitatea; beti ere, beraiek zuzen zuzenean egiazta dezaten euren gaitasunak eta talentua ikasketa jakin batzuekin lerrokatu daudenentz.

Programa hau abian jartzen da honako helburu hauek erdietsi ahal izateko:

- Etorkizuneko unibertsitate-ikasleen orientazio profesionala hobetzea, unibertsitate- eta unibertsitate aurreko heziketaren arteko koordinazioa ahalbidetuko duen mekanismo berritzailea garatuz.
- UPV/EHUren formakuntza-eskaintza Gipuzkoako gizartearen eta, batik bat, Gipuzkoako Bazkundearen laguntzaren bitartez, lurraldeko enpresa-sarearen beharretara gerturatzea. Programa abian jartzeak ez dakar berekin UPV/EHUren formakuntza-eskaintza moldatuko denik. Aitzitik, Gipuzkoako enpresa-sareak eskatzen dituen titulazioak eta profil profesionalak zeintzuk diren jakitera ematea ikasleak, espezialduriko talentuaren sorketari ekarpen nabarmena eginez lurraldean.

EGOKITU programak berekin dakar UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko 7 Ikastegitan Udako Formakuntza-Ikastaroak abian jartzen direla. Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak koordinatutako eta kudeatuko du aipatu programa.

ZURE BILA GABILTZA

Unibertsitate eta lanbide-mundura modu ludikoan hurbildu nahi diren DBHko 2. maila gainditu duten gazteei (17 urtekoak gehienez).



BALDINTZAK

Gurasoen baimena.

IRAKASKUNTZA

Ikusi ikastegi bakoitzaren programa hemen:
<https://www.ehu.eus/eu/web/gipuzkoa/egokitu>

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2019/07/01-etik 2019/07/12-ra

EMATEKO TOKIA: Zentru desberdinetan

HIZKUNTZA: Gaztelania eta euskara

INFORMAZIOA/KONTAKTUA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza

HELBIDEA: Julianategi, Arriola Bidea, 2. 20018 Donostia-**San Sebastián**

TELEFONOA: 943 01 59 55

POSTA ELEKTRONIKOA: vicar.campus-gipuzkoa@ehu.eus

WEB ORRIA: <https://www.ehu.eus/eu/web/gipuzkoa/egokitu>

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.